



# Apexa eta lorea

Herri doinua

Hitzak: J. B. Elizanburu

**Andante espressivo**

G Am D G

1 3 1 4 1 3 2 1

*mp*

5 2 1 2

Em Am D G

5 4 1 5 2 4 5 4 1 2

1. Néguez primadera zenean jabetu,  
Sasi baten hegian apexa zen sortu ;  
Lekhü berean baitzen lorea gerthatu,  
Gaixoek elgar zuten bihotzez maitatu.

2. Iguzkiak ihintza histen duenean,  
Apexa doha bethi hegalez airean ;  
Nahi luke loreak segitu bidean,  
Girthainak zertako du gelditzen lurrean?

3. Loreak. « Nere besoak ditik ihintzak zerratzen,  
«Ondikotz! iguzkiak goizean urratzen!  
«Zertako haiz hi bethi nitarik urruntzen ?  
«Hi guan eta badakik, nigarrez nauk hurtzen.

4. Apexak. «Zertako nigar egin, ó lilí maitea ?  
«Egunaz iguzkia dun nere jabea;  
«Goizetik lorez lore dinat nik bidea;  
«Iguzkia sartzean bethi naun hirea..

5. Loreak. «Goiz guziez adío, arratsean agur,  
«Egunak luze dituk gauak aldíz labur;  
«Nere nigarrez othoi ez hadíla samur,  
«Zeren hire galtzeaz bethi nauk ni beldur...

6. Iguzkiak, goiz batez, zenean agertu,  
Lorearen besoak zituen urratu;  
Bi maitek zutenean elgar besarkatu,  
Apexak haizeari hegalez hedatu.

7. « Haize bihotz gabea zertako herritik  
Ereman duk apexa mendien gainetik?  
Zertako duk urrundu maitearen ganik!  
Hegaztin gaixo horrek ez zian hobenik».

8. « Apex hegál flakoa, geldí hadí, geldí  
Utzíz bozkarioa, doluan sar hadí:  
Zertako haiz fidatu haize gaixtoari ?  
Lorearen gainera lurra duk itzulí!..

9. Apexak. « Maitía, kausitzen hut lurrez estalía !  
«Jainkoak bere ganat deithü hau, lilía!  
« Hi lurreko hindudan sosegu guzía ;  
« Hil haiz!... Oraí neretzat deus ez dun bizía !,

10. Oraino iguzkia zohan inguruan  
Apexa zenean hil bere sor lekhu...  
Izan baitzuen aski zorigaitz munduan,  
Agian Lorea du khausitu zeruan!